

UDALBERRI

1.1. zbkia. Ataungo Udal Aldizkaria 2002ko Maiatza

ALE BEREZIA

ARAU SUBSIDIARIOEN ERREBISIOA
abantzea jendaurrean

sarrera

Herritar lagun,

Ataungo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikusketari ekin diogu, hauek herriko beharretara egokitu asmoz. Arau Subsidiarioak herri garapenaren zutabe nagusienetako bat dira, eta duten garrantzia ikusita, batzorde berezi bat osatu dugu Udalean gai hau lantzeko. Zentzu berean, dokumentuaren erredakzioa Roberto Garcia arkitektoari eta Jon Orue-Etxebarria abokatuari enkargatu zaie.

Arau Subsidiarioen berrikusketa prozesu luzea da, eta orain aurkeztera gatozkizuen hau lehen urratsa da, abantzea hain zuzen ere. Abantzean, helburu orokorrak eta helburu horiei erantzuteko planeamendu posible bat jaso dira.


Udalaren nahia, Arau Subsidiarioen aldaketa hau ahalik eta herritarron parte-hartzerik handienarekin egitea da, eta horretarako, abantzea Udaletxean izango duzue ikusgai ekainaren 15a bitartean, aztertu eta egoki deritzozuen proposamenak egiteko.

Behin herritarron proposamenak jaso, aztertu eta erantzun ondoren, dokumentuaren erredakzioari ekingo diogu, hau ere, amaitu eta gero, jendaurrean izango delarik interesa izan dezaketenek beraien iritzia aurkeztu ahal izateko.

Etorkizunean Ataunen garapenaren zutabe izango diren Arau hauen berrikusketan parte hartzea gonbidatzen zaitugu beraz, denon parte hartzearekin zutabe horren oinarria sendoagoa izango da eta.



Aitor Auzmendi Asurabarrena
Alkatea



HELBURU OROKORRAK

Planeamendu berri honek Ataunen garapena du helburu. Baina Ataunek gaur egun duen izaerarekin orekan emango den garapena. Izaera diogunean, ataundarron izaeraz gain, herri egituraz, ingurugiroaz, ondare kulturalaz e. a. ari gera.

Gaur egun 1.535 biztanle ditu Ataunek. Hazkunde txiki bat bultzatu nahiez, planeamendu honetan 1.500 eta 1.900 biztanleko herri bat aurreikusi da. Gaur egungo auzoetan banatuta, auzo bakoitzak bere nortasunarekin jarraitzea nahi baita. Gaur egun auzo bakoitzak duen egitura izan da oinarri beraien garapena aurreikusterakotan.

Ondorengo ataletan ikusiko dugun moduan, mota ezberdinetako etxebizitza eskaintza zabal bat bultzatuko da. Era berean, Ataungo ekonomi garapena bultzatuko duten sektore ezberdinen ezarketa ahalbideratu nahi da. Eta nola ez, ataundarron bizitza kalitatea hobetzeko, lehendik ditugun ekipamendu eta azpiegiturak osatuko dira. Eta hau dena, herrian dugun kultur eta natur ondare babestu eta ezagutarazteko konpromisoarekin.


ETXEBIZITZAK

Mota ezberdinetako etxe eskaintza aurreikusi da, bai etxebizitza anitzekoak eta baita etxebizitza bakar edo bikoak ere, auzo bakoitzaren gaurdainoko egitura eta itxura errespetatuz.

Herritarrek izan ditzaketen behar eta eskaera ezberdinei erantzun nahi izan zaie modu honetan, eta etxebizitza Ataunen edonorentzat eskuragarri izan dadin hainbat gune babes ofizialeko etxebizitzak egiteko izendatu dira.

Guztira 260 etxebizitzako gehikuntza aurreikusten da, lehendik Ataunek dituen 527ri gehitu ezker, guztira 787 etxebizitza izango lituzkeelarik. Hauez gain kontu izan 218 etxebizitza ditugula baserrietan banatuta. Guztira beraz 307 etxebizitza berri izango lirateke, horretarako 47 zahar bota egingo liratekeelarik. 307 horietatik 55, lehendik eraikitako azalera handia duten etxeen teilatupean aterako liratekeen etxebizitzak dira. 205 etxebizitza dira beraz eraikin berrietan kokatuko liratekeenak.

Ondorengo hau duzue auzoz auzoko egoera eta aurreikuspena:



Auzoa	Azalera	Dauden Etxebizitzak	Botatzeko Etxebizitzak	Etxebizitza Berriak	Guztira	Dentsitatea
San Martin	156.221	343	31	186	498	31,88
Astigarraga	38.022	35	0	20	55	14,47
Arrondoa	28.828	33	13	41	61	21,16
San Gregorio	37.067	82	3	43	122	32,91
Aia	6.709	6	0	6	12	17,89
Arinberriaga	16.378	8	0	4	12	7,33
Ergoiena	41.096	20	0	7	27	6,57
BATURA	324.321	527	47	307	787	24,27

San Martinen, erdigunean etxebizitza anitzeko etxeak aurreikusi dira, gehienez ere behe solairua gehi 3 solairukoak. Ingurunean aldiz, bai Iztator aldean eta baita hilerri bidean ere, etxebizitza bakar edo biko etxeak, lehendik ziren adosatu egiturak bazterrera utziz.

Astigarraga, aurreko arauetan landa-lurra zen eta orain berriz hiri-lurra izango da. Bertan etxebizitza bakar eta biko etxe berriak aurreikusi dira, auzoaren atzealdean. Garapen hau errepideak nabarmen baldintzatu du, Astigarraga guztian autoentzako sarrera-irteera egin daitekeen gunek bakarria Domekaenea eta Gabrielene bitartea baita Errepideetako Foru Araudien arabera.

Arrondon aldiz, Arau Subsidiarioetan egin berri den aldaketa errespetatu da. Aldaketa horretan adosatu egiturako etxebizitzak kendu eta etxebizitza bakar eta biko etxeak aurreikusi ziren auzoak gaur egun dituen etxeen arteko hutsunetan.


Arinberriagan ere, Arau Subsidiarioetan egin berri den aldaketa errespetatu da. Landa-auzo izendapena du eta modu honetako auzoek izan deza-

keten garapena aurreikusi da: Lehendik dauden etxe kopurua bikoiztera iritsi gabe egitura bereko etxeak gaur egungo etxeen inguruan.

San Gregorion, etxebizitza anitzeko etxe gehiago egiteko aukerarik ez zen gaurko Arauetan eta behar horri erantzunez 3 gunek berri izendatu dira horretarako. Etxebizitza bakar eta biko etxe berriak hilerriarako bide inguruan aurreikusi dira, Zelabear inguruan lehen planteatuak ziren adosatuak alde batera utzi direlarik. Hauen egitura ez datorrelako bat auzoaren ohiko egiturarekin eta zuten urbanizazio kostea izugarria zelako.

Ergoienan ere, Arau Subsidiarioetan egin berri den aldaketa errespetatu da. Honek ere landa-auzo izendapena du eta lehengo etxeen inguruan etxebizitza bakar eta biko etxeak aurreikusiak daude.

Aian berriz, etxebizitza bakar eta bikoak aurreikusi dira Felipene eta Bikarioetxe artean, gaur egungo auzo-itxura errespetatu nahian eta Errepideetako Foru Arauetan, sarbideei dagokionean, kasko inguruan uzten duten bakarrenetakoa aprobetxatuz.



EKONOMI GARAPENA


Nekazal sektorea izan da tradizionalki Ataunen garatu izan den ekonomi sektore bakarra, aspaldiko urteetan, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, gainbehera etorri bada ere. Arau Subsidiario hauen berrikuskatzean landa-lurra bere horretan mantentzea izan da helburua, bestelako erabileretarako azalera oso txikiak izendatuz, modu honetan, gaur egun indarrean dauden eta etorkizunean egon daitezkeen nekazal jardueren garapena bermatuz.

Industri alorrean, Zubikoeta eta Otadi Zelai tarteko industrigunea ia garatu delarik, Sastegi azpiko zelaian beste industrigune bat aurreikusi da. Hau garatuko balitz eta gehiagoren beharra balego, Baintitxiki azpiko zelaian beste industrigune txikiago bat aurreikusi da baita ere.

Non	Azalera	Aprobetxamendua	Eraikigarritasuna
Zubikoeta – Otadi Zelai	17.384 m	10.297 m	0,59
Sastegi azpian	20.561 m	10.553 m	0,51
Baintitxiki azpian	16.050 m	6.598 m	0,41
GUZTIRA	53.995 m	27.448 m	0,51

Bestalde, ur-botilarazte enpresa baterako asmo baten aurrean, Aitzar-terreka ondoan, Imatzene parean, lur ez-urbanizagarri edo landa-lurrean industri ez kutsagarrientzako erabilera ahalbideratzen den 37.000 m² tako azalera dago izendatuta.

Turismoa da Ataunen garapenik izan ez duen sektorea eta Arau aldaketa honekin ahalbideratu nahi dena, Ataunek duen kultur eta natur ondareaz baliatuz. Zentzu honetan Joxemiel Barandiaranen interpretazio zentroaren garapena bermatzeko Sara etxearen inguruko lurak gorde dira, era beran Sara etxea bera ere babestuta geldituz. Bestalde, turismo garapenerako ezinbestekoa den lo-leku eskaintza osatzearren, aurrez bideratzen ari den beste Arauen aldaketa batetan bi ekimen daude aurreikusiak. Alde batetik, Marumendiko zelaitik eskuinera hartu eta bidez goenetik dagoen Udalaren pinudian borde osatutako ostalaritza erabilera baimentzen deneko 10 hektarea inguruko azalera finkatu da. Bestalde, bainuetxe izan zen Erremedio eta bere lurak erosiak ditu Udalak, 40 hektarea inguru, etorkizunean ere bainuetxe edo antzeko zerbait egitea ahalbideratuz Arauetan.



AZPIEGITURAK

Azpiegiturarik nagusia herria zeharkatzen duen GI-120 errepidea da. Indarrean diren Arauetan bi bariante aurreikusten ziren. San Martin zeharkatzeko lehena, Barretxe inguruan erreka gurutzatu eta mendi aldera sartu eta Baztarrikako zelaietan berriro gaurko errepidearekin batzen zena. Eta San Gregorio zeharkatzeko bigarrena, Murkondon sartu, hilerri ondotik pasa eta presa inguruan errepidearekin bat eginez.

Arau berrietan bi bariante hauek desagertu egingo dira eta gaur egungo errepidearen hobekuntza aurreikusten da. Hobekuntza honi dagokionean, auzunetan garrantzi handia eman zaio oinezkoen segurtasunari, beste neurri batzuen artean espaloi egokiak ere aurreikusiz. San Martin eta Aiako plazen kasuan berriz, errepideak trataera berezia izango du plaza erditik pasatzen baita.

Auzo ezberdinetan ditugun aparkaleku arazoei erantzun asmoz kokamen ezberdinak izendatu dira zeregin horretarako.

Oinezkoentzat ibilbide alternatibo gisa, San Martin eta San Gregorio bitartean berreskuratu zen Herri Bide Zaharrak San Gregoriotik Kaxeta bitartean eta San Martindik Umarkira bitartean jarraipena izango du.

EKIPAMENDUA


Ataundarron bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin, azken urteotan kultur, kirol, gizarte, hezkuntza, zerbitzu eta antzeko alo-rretan ekipamendu zaharrak egokitu eta berriak egin dira, hala nola: Auzoeta kiroldegia, Zelai frontoia, Erroipe aterpea, San Gregorio elkargunea, Herri Antzokia, Aitzarri elkarte, Mediku Kontsultategi berriak hiru auzoetan, liburutegia e.a... Ekipamendu sare hau osatzeko ekimen ezberdinak jaso dira Planeamenduaren errebisio honetan, ondorengo hauek direlarik garrantzitsuenak:


Auzoeta Udal Kiroldegia eta Gabrielene bitarteko gunea, etorkizunean igerilekua egin daitekeen gunea izanik, aurreko arauetan bezala zeregin horretarako gorde da.

Baztarrika inguruko zelaietan aisialdi gunea bat eratu asmoz, horretarako dagokion izendapena eman zaio gunee horri.

PLANOAK


Ondorengo orrietan, aurrez laburbildu ditugun erizpide orokorren baitan egindako planeamendua jasotzen duten auzoz auzoko planoak aurkezten dizkizuegu. Esan gabe ezin utzi, Arau Subsidiarioen errebisioari dagozkion plano guztiak Udaletxean izango dituzuela ikusgai.





Industri guneak

San Martin





Astigarraga






Arrondo




Arrinberriaga





San Gregorio







ATAUNGO UDALA

UDALBERRI

11. zbkia. Ataungo Udal Aldizkaria 2002ko Maiatza

ALE BEREZIA

ARAU SUBSIDIARIOEN ERREBISIOA
abantzea jendaurrean